

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Manuel Oliden Kortajarena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1941)*

Aurkibidea



Biografia



Kaian jaioa, hantxe bizi da orain ere. Aita-amak biak zituen donostiarrak. Aita arrantzalea zen, eta bide beretik jo zuen Manuelek ere. Umetatik zuen itsasorako grina. Anaiarekin hasi zen arrantzan, 12 urterekin, motor txikian. Baina etxean baldintza bat jarri zioten: ikasten jarraitzea. Gau eskolara joan zen, eta atera beharreko titulu guztiak atera zituen, fin-fin. 18 urterako patroia zen, ontziko gazteena izanagatik. Armadore ere bihurtu zen, Orioko arrantzale batekin erdibana. 19 urterekin soldaduska egitea egokitu zitzaion, Madrilen. Egia auzora ezkondu zen gero, eta hantxe bizi izan ziren 34 urtean; hori bai, itsasora joateari utzi gabe. Bi seme ditu. Arrantzaleen Kofradiako burua izan da 28 urtean.

Zintak

DON-032

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-13
- **Iraupena:** 121 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Aitaren baporean

- **Erref:** DON-032/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:03:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Aitak baporea zuen, eta hiru anaiak ere itsasoan ibiliak dira. Aita gazte samar erretiratu zen ordea, bihotzekoak emanda.

2. 12 urterekin itsasora lanera

- **Erref:** DON-032/003
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Donostiar arrantzale ia denen antzera, portuko eskola batean hasi zen 'orientación marítima' ikasten. Bere nahia beti izan zen itsasora joatea, eta 12 urterekin hasi zen itsasoko lanetan. 14 urterekin beste bapora batean hasi behar izan zuen lanean, eta gau eskoletan ikasten jarraitzen zuelarik, 17rekin atera zituen itsasoarekin lotutako lehenengo titulu ofizialak.

3. 'San Cayetano' ontzia

- **Erref:** DON-032/004
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

19rekin joan eta bi urte eman zituen Madrilén, soldadutzan. Hara joaterako patroil lanetan hasia zen. 1965ean, 'San Cayetano' bapora ekarri zuen oriotar batekin batera. Hasiera ez zen samurra izan, sare bakarra zuten, ontzia txapazkoa izanagatik atunak ez ziren gerturatzen zarata handia ateratzen zuelako, eta abar. Bi urteren buruan, eman zioten buelta egoerari.

4. Ezkondu eta Egiara bizitzera

- **Erref:** DON-032/005
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:11:16. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Bapora ekarri eta handik urte betera ezkondu zen Juan Manuel. Egiara joan ziren bizitzera, eta bi seme izan zituzten. Arreba hil zenean, ordea, portuko euren betiko etxea hutsik geratu zen, eta bertara joan ziren bizitzera.

5. Baporeko lanak eta arauak

- **Erref:** DON-032/007
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko garbitasuna
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Mutikotan baporean egin beharreko lanak sukaldean lagundu, lapikoak garbitu, lehorreratzean dendaz denda joan enkargutara... izaten ziren, eta marinelen aldean, soldata erdia jasotzen zuten. Jaterako garaian ere baziren arauak, platerik ez zegoenez, lapikotik jaten zuten denek, goilaraz, eta zaharrenak 'mojon' oihukatzen zuenean, zahatoa pasatzen zioten elkarri, ardoa edateko. Ardo gutxi edaten zuen Juan Manuelek, nahiago zituen freskagarriak.

6. Hondartzetan lapikoak garbitzen

- **Erref:** DON-032/008
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:21:12. **Bukatu:** 00:22:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko garbitasuna

Laburpena:

Baporeko sukaldean ikatza eta gasoila erabiltzen zutenez, aluminiozko lapikoek zeharo belztuta amaitzen zuten, eta lehorreratzean hondartzara joan ohi ziren haiek garbitzera. Santanderren-edo lehorreratuz gero, bapore asko elkartzen ziren lekuetan, lapiko garbiak ipurdiz gora jartzen zituzten hondarretan, garbienak norberarenak zirela demostratu nahian.

7. Lantxo guztiak egitetik patroï lanetara

- **Erref:** DON-032/009
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:22:14. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

14 urterekin bapore handiago batera joan behar izan zuen, "Txomin"-en baporera, alegia. Ordurako nautika eskolan hasia zen, eta 16-17 urtera arte edozein lan egiten jarraitzen zuen bapore hartan: arraunean aritu, lapikoak garbitu, arraina sartu... Sardinak eta antxoak nola harrapatzen zituzten azaltzen du Juan Manuelek. Handik denbora batera, baporeko lantxo guztiak egitetik patroï laguntzaile izatera igaro zen.

8. Marrajutara

- **Erref:** DON-032/010
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:27:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Natura » Fauna » Itsas fauna

Laburpena:

12-13 urterekin marrajuak arrantzatzen joan ohi ziren. Eguraldiaren arabera urrunago edo hurbilago baina, askotan bertan egoten ziren, portutik ordubetera-edo. Hotz egiten zuen garaian, urez betetako ontzi bat izaten zuten, eskuak bertan sartu eta berotzeko, itsasoko ura epelxeago egoten baitzen kanpoko tenperatura baino.

9. Marrajutara II

- **Erref:** DON-032/011
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:27:19. **Bukatu:** 00:28:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Marrajuak nola harrapatu kontatzen du Juan Manuelek. Karnata gisa antxoa, txitxarroa... jartzen omen zuten amuan. Lauzpabost motor txiki omen ziren portutik marrajutara joan ohi zirenak, eta denak elkarrekin joaten ziren.

10. Ontzien arteko lehia

- **Erref:** DON-032/012
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:28:37. **Bukatu:** 00:29:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Lehia izaten zen ontzien artean. Gaur egun kirol moduan ezagutzen ditugun estropadak ere horrela hasi ziren, arraunean ia azkarrago zein iristen zen portura. Patroien artean ere bazen lehia, hobeak eta kaxkarragoak omen zeudelako.

11. Antxoak uretara berriz

- **Erref:** DON-032/013
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:30:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Arraina ezin saldurik ibiltzen ziren askotan. Antxoak portura eraman, eta ezin salduagatik uretara bota behar izaten zituzten.

12. 'Partila' eta 'txakurrena'

- **Erref:** DON-032/014
- **Iraupena:** 0:05:39. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:36:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Jornalen eta eskupekoen banaketa nola egiten zen azaltzen du Juan Manuelek, baita marinelen eta armadoreen arteko desberdintasunak azaldu ere. 'Partila' eta 'txakurrena', gaur egun ere erabiltzen omen dira.

13. Tostartekoak, patroiak eta armadoreak

- **Erref:** DON-032/016
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:37:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Marinelei "tostarteko" ere esaten zitzaien. Ontzia edo baporea patroiak edo armadoreak gobernatzen zuen, askotan patroia eta armadorea, pertsona bera izan ohi ziren.

14. Aparejuak arto azalekin

- **Erref:** DON-032/017
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:37:29. **Bukatu:** 00:40:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantza motak
- Natura » Fauna » Itsas fauna

Laburpena:

Donostiarrak abilak omen ziren 'kaza'-n. Arto azalekin eginiko apareju batzuekin ibiltzen ziren 'kaza'-n. Bixiguak, 'treza' izeneko aparejuekin

harrapatzen zituzten. San Sebastian eguna arte gutxi gorabehera, marrajutan aritzen ziren, baita bixigutan edo papardotan ere.

15. Bisigua bizi-bizi

- **Erref:** DON-032/018
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:40:24. **Bukatu:** 00:42:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Bisigutara joateko goiz ibili behar izaten zuten arrantzaleek, "Plaiaxu" edo "Exkote"-ra iritsi nahi bazuten behintzat. Eguerdirako bueltan izaten ziren askotan. Orduan bisigua legatza baino merkeagoa zen, asko zegoelako, baina pelajika frantziarrek eraman egin zituzten denak.</p>

16. Donostiako portua, guztiz aberastua

- **Erref:** DON-032/019
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:42:23. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Antxoarekin bixiguarekin gertatu denaren antzekoa gertatu omen da. Pelajika frantsesek euskal kostaldea hustutzeaz gain, garai batean antxoa txikiak harrapatzea ohikoa zen, debekurik ez zenean, eta gazituta sartzen zituzten sotoetan, negua heldu arte. Donostia zen inguruetako kofradiarik aberastuena, arrain asko saltzen zen bertan, bapore ugari gerturatzen ziren Donostiako portura. Kofradiak ezin zuenez irabaziekin amaitu urtea, gabonetan dirua banatzen ei zuten denen artean.

17. Erreteriarra eta Hernanira dantzara

- **Erref:** DON-032/021
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Neguan Erreteriarra joaten ziren dantzara, eta udan, berriz, Hernanira. Baita Igeldora ere. 1950.etik aurrera, urte onak izan ziren bajurako arrantzaleentzat.

18. Donostiako kofradia, gose urteak asetuz

- **Erref:** DON-032/022
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:50:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

40. hamarkadako urteak gose urteak izan ziren. Arrain asko zegoen garai hartan eta jendea arrantzaleei esker bizi zen. Kofradiak gosea kendu omen zion donostiar herriari. Jendea zapiekin gerturatzen zen portura, eta pare bat kilo arrain eramaten zituen etxera. Plastikozko poltsak sortu zituztenean, ordea, 4-5 kilo sartzen zirenez bertan, debekatu egin behar izan zuten kofradian arraina dohan banatzea.

19. Kofradiako presidente

- **Erref:** DON-032/023
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:50:29. **Bukatu:** 00:54:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:

Donostiako kofradiako presidente izan zen Juan Manuel, 28 urtez. Kofradiako estatutuak betearaztea zen, besteak beste, bere funtzio nagusietako bat. Hainbat arazo egon zirenez aurretik, hilero bilera bat egitea proposatu zuen berak, guztiak ongi funtziona zezan.

20. Bandera eta bandereroa

- **Erref:** DON-032/025
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:54:27. **Bukatu:** 00:57:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Kofradian bandera jartzen zenean, arraina saldu ezinik zebiltzala esan nahi zuen. Bandereroak, berriz, eguraldiaren berri ematen zuen, eta horren arabera erabakitzen zuten itsasora joan ala ez. Jai egunetan ere, bandera jarrita egoten zen kofradian, Karmenetan, Gabonetan, eta Aste Santuan.

21. Arrantzale fededunak

- **Erref:** DON-032/026
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:57:04. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Euskal arrantzaleak oso fededunak ziren. Sare berriak jostean, edo bapore berria ekartzean, bedeinkatu egin behar izaten zen. Ontzien izenak ere halakoxeak ziren: 'San Cayetano'...

22. Goitizenak

- **Erref:** DON-032/027
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:58:45. **Bukatu:** 00:59:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Orio eta inguruetan jendeari goitizenez deitzeko ohitura handia zuten, Donostian ez horrenbeste. Ontziei bai ordea, euren familiako ontziari berezko izenez esan beharrean 'Kaitana' esaten zieten, amonaren izenez.

23. Donostiako portua

- **Erref:** DON-032/028
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:59:23. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

<p>Donostiar merkataritza puntaren puntan omen zebilen garai hartan. Kontxa inguruan bajurako 30 bapore inguru izango ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta hemen ze untzi... Hemen untzi asko egongo zian, barku asko egongo zian sasoi baten. Ze klasetako...?
- Hemen denak zian klase bateko... Bueno, gure aurretikan hemen izan zan historiengatikan "comercio con San Sebastian" zekan, Donostiak zekan komerziua hemen Kantabrikoko onena, porke Kontxak zekan ur asko eta, orduan, komertzioa egiten zan Amerikakin ta denakin. Hoi, bueno, hori jakingo dezu historiengatikan. Baiñon ni gogoratzen naizena, hemen denak, bapore guztiak, hemen egongo zian orduan 30 bapore bajurakuak bai. Nik ezautu det ya 30 bapore. Txikiyok zian, baiña 30 bapore bai.

24. Bapore denak bisigutan, antxoatan, marrajutan...

- **Erref:** DON-032/030
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:00:22. **Bukatu:** 01:01:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Natura » Fauna » Itsas fauna

Laburpena:

<p>Lehen bapore denak antzekoak izan ohi ziren, eta denak aritzen ziren bisigu kosteran, antxoa kosteran, atun kosteran, marrajutan nahiz legatzetan. Ontzi txikiago batzuk baziren aingiretan-eta ibiltzen zirenak, baina gutxi.</p>

25. Kaldera-makinak

- **Erref:** DON-032/031
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:01:12. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Asturiasen ikusiak ditu sarea bota eta ontziak arraunean porturatzen, berak ez zuen hori ezagutu. Kaldera-makinak bai, ordea, ikatza erreta ibiltzen ziren baporeak.

26. Ikatza Asturiastik

- **Erref:** DON-032/032
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:02:30. **Bukatu:** 01:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Ikatza Asturiastik ekartzen zuten trenez, porturaino. Duela 50 urte inguru estaliko zuten bertaraino heltzen zen trenbidea. 'Cementos Rezola'-k ere bi bapore porlanez goraino kargatu eta Asturiasa bidali ohi zituen, eta papera egin ahal izateko eukalipto egurrekin etorri ohi ziren ziren bueltan.

27. 'Brujula' eta 'sestantea'

- **Erref:** DON-032/033
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 01:04:31. **Bukatu:** 01:08:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Garai hartan 'brujula' eta 'sestantea' erabiltzen ziren baporearen kokapena neurtzeko, norabidea zehazteko. Kalkulo asko egin behar izaten zituzten, komandantzian irakatsi zieten halakoak egiten.

28. Antxoa arrantza

- **Erref:** DON-032/034
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:08:07. **Bukatu:** 01:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Atun kostera amaitzean hasten ziren antxoatan, neguan antxoa txikiak harrapatzen zituzten, eta apiriletik udara arte, antxoa handiak. Sarea nola botatzen zen eta nola biltzen zuten azaltzen du.

29. Antxoa arrantza II

- **Erref:** DON-032/035
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:11:30. **Bukatu:** 01:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Antxoa metak egon ohi ziren portuan. Baserritarrek ongarri gisa sorora botatzeko eraman ohi zituzten askotan, eta Pasaiaiko 'Alfa' fabrikatik ere etortzen ziren antxoa bila, pentsua egiteko.

30. Enkantea

- **Erref:** DON-032/036
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:13:00. **Bukatu:** 01:14:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Enkanteak gaztelaniaz funtzionatzen zuen orduan. Baporeak kaian sartu ahala hasten zen salmenta.

31. Kaiko dendak eta tabernak

- **Erref:** DON-032/037
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:14:49. **Bukatu:** 01:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Kaian baziren dendak eta tabernak. Bertara joaten ziren otarteko bila, edo bertan aritzen ziren karta jokoan.

32. Arrain saltzaileak

- **Erref:** DON-032/038
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:15:15. **Bukatu:** 01:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakume asko, kalderak antxoaz bete eta alde zaharreko iskinetan jarri ohi ziren, antxoak saltzen. Baita beste auzoetan ere. Gerraostean ez zegoen dirurik, eta merke saldu ohi zituzten.

33. Saregileak eta 'pixonerak'

- **Erref:** DON-032/039
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:18:44. **Bukatu:** 01:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Saregileek 'pixonera' lanak ere egiten zituzten, baporeak sartzean arraine beteriko otarrak neurtu, datuak jaso, kofradiara eraman... Sareak alkitranez tindatu behar izaten ziren, kotoizkoak izanik bestela usteldu egiten zirelako.

34. Arraina gatzetan

- **Erref:** DON-032/040
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:22:05. **Bukatu:** 01:25:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Getarian-eta fabriketan jartzen zuten arraina gatzetan. Eurek etxerako jarri ohi zuten, antxoak, batez ere. Baporeak porturatzean, arrantzaleek arraina eraman ohi zuten etxera, jan, gatzetan jarri, edo esne banatzaileari barazki truke ematen zieten arraina.

35. Arraina izotzetan

- **Erref:** DON-032/041
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:25:02. **Bukatu:** 01:28:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Arraina izotzetan emakumeek jarri ohi zuten. Izotza 'El León' fabrikatik ekartzen zuten, besteak beste. Hogei arroa sartzen ziren tiña edo upeletan ere gordetzen zuten arraina, gatzetan. Mutrikun ere porturatzen ziren zenbaitetan, antxoa eta atuna saltzeko. (Arroa 1= 12.5 kg)</p>

36. Sare motak

- **Erref:** DON-032/042
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:28:01. **Bukatu:** 01:30:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak baporera sareak jostera igotzen ziren. Sare mota desberdinak nolakoak ziren azaltzen du. Sareak lehortzen jarri behar izaten zituzten, gero berriz itsasoratzeko. Mutrikun, Bartzelonan... egiten zituzten sareak.

37. Atun arrantza

- **Erref:** DON-032/043
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:30:57. **Bukatu:** 01:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Atun arrantza nola izaten zen azaltzen du. 'Kaza'-n, kañabelarekin... harrapatu ohi zen atuna.

38. Langostatan

- **Erref:** DON-032/044
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:32:10. **Bukatu:** 01:34:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Itsas fauna
- Itsasoa » Arrantza motak

Laburpena:

Donostian ez zegoen olagarro arrantzarako ohituratik. Langostak harrapatzen aritzen ziren ordea, baziren pare bat bapore langostatan aritzen zirenak.

39. Otar bereziak

- **Erref:** DON-032/045
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:34:31. **Bukatu:** 01:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Otar bereziak zituzten arraina biltzeko. Sarritan apurtu egiten ziren uretatik tiraka ateratzean.

40. Egin beharrak, kareletik behera

- **Erref:** DON-032/047
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:37:28. **Bukatu:** 01:40:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Komunik ez zegoen baporeetan, egin beharrak kareletik behera egin behar izaten zituzten. Ardo barrika ugari eramaten zituzten itsasora, baina arrantzale askok nahiago izaten zuten ura edan.

41. Arrantzaleak sagardotegietan

- **Erref:** DON-032/048
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 01:40:23. **Bukatu:** 01:44:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Sagardotegi asko zeuden Donostian. Arrantzaleek arraina eramaten zuten sagardotegira bertan erretzeko, eta hala askotan ez zuten sagardoagatik ordaindu beharrik izaten.

42. Oinutsik

- **Erref:** DON-032/049

- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:44:03. **Bukatu:** 01:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Oinutsik ibiltzeko ohitura zuten arrantzale askok. Ohituraz gain, ez zegoen oinetako egokiak erosteko adinako dirurik.

43. Lekaleak, atuna eta izurdea

- **Erref:** DON-032/051
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:45:49. **Bukatu:** 01:48:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Lekale asko jaten zuten itsasoan: garbantzuak, lentejak, babarrunak... baita arroza ere. Atuna ere jaten zuten, marmitakoan edo erreta, eta zenbaitetan izurdea ere bai.

44. Baporeen artean, euskaraz

- **Erref:** DON-032/052
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:48:49. **Bukatu:** 01:52:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Inguruko herrietako baporeetako arrantzale edo langileekin euskaraz komunikatzen ziren. Donostiako portuan eta, hirian orokorrean, jende asko gaztelaniaz bizi zen. Frankismo garaia garai gogorrak izan ziren.

45. Aita Ondarretan preso

- **Erref:** DON-032/053
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:52:47. **Bukatu:** 01:53:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Ondarretan egon zen espetxean. Baporearekin jendea mugaz bestalde eramatea eta ihes egin behar izan zuen jendeari laguntzearen espetxeratu omen zuten.

46. "Perrita al agua"

- **Erref:** DON-032/055
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:54:00. **Bukatu:** 01:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Arranplan ikasi zuten igeri egiten. Mutilak bainujantzia bainatzen ziren, eta neskak berriz, goitik behera jantzita. "Perrita al agua" esan, eta aberatsek-eta txanponak botatzen zituzten uretara. Jaunartzea egin arte, neskak eta mutilak elkarrekin ibili ohi ziren jolasean.

47. Aita Mari

- **Erref:** DON-032/057
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:57:40. **Bukatu:** 01:59:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aita Mari zumaiaarraren kontuak kontatzen ditu, bere balentriak, eta nola hil zen ere bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com